

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERA SUSTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Aurrekariak

Hernaniko Udalak, Ekhilur Kooperatiba elkarteko bazkide laguntzaile izan eta Ekhi moneta soziala martxan jartzeko akordioa hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria da Hernanin % 100 tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Hernaniko Udalak Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena proposatzen du ondorengo helburuak lortzeko:

1. Zirkuito ekonomiko itxia sortzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
2. Herritarren erosketak ohiturak aldatzea, erosketak herrian egitea sustatuz.
3. Komunitatea indartzea (herritarrek, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduz.
4. Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak hobaritu eta sustatuz.
5. Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Bi aldeek bat egiten dute ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko jardunean, eta egoki ikusten dute tokiko moneta sozialaren erabilera sustatzea, kasu honetan, Hernaniko Ekhi moneta sozialaren erabilera. Bestalde, 2025 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Ekhilur Kooperatiba elkarteak.

Udal teknikariak txostena egin du.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko martxoaren 26ko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da **GEHIENGOZ**

Lehena.- 2025 urteko justifikazioa ontzat ematea eta azken ordainketa egitea (22.000 €).

Bigarrena.- Tokiko moneta sozialaren erabilerarako Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena onartzea, Ekhilur kooperatiba elkartearen alde eta lehen ordainketa egitea: 33.000€ (% 60).

Epea: 1 urte (2026/12/31)

Kontusaila: 1 1520.481.03.431.00 2026 Dirulaguntza Ekhilur Hitzarmena

Kreditua: 55.000,00 €

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrituz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsioak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoetxea
Behin-behineko udal idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 26an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

